

STM

San Telmo Museoa



EBROKO GUDUA. BONBARDAKETA / BATALLA DEL EBRO. BOMBARDEO

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN
**KEAREN ETA
LANBROAREN ARTEAN**

SIGFRIDO KOCH BENGOCHEA




LAINOA / NIEBLA

**ENTRE EL HUMO
Y LA BRUMA**

2021-02-18 // 2021-05-23

STM

San Telmo Museoa



GERNIKA

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 580 E. santelmo@donostia.eus
www.santelmomuseoa.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

San Telmo Museoa Kearen eta lanbroarten artean. Sigfrido Koch Bengoechea argazki erakusketa aurkezten du

**Erakusketak 150 irudi inguru biltzen ditu, gehienak argitaratu gabeak, eta
Lee Fontanellak eta Juantxo Egañak komisariatu dute. Otsailaren 18tik
maiatzaren 23ra arte egongo da ikusgai.**

Erakusketaren oinarria Sigfrido Koch Bengoechearen argazki lana da, XX. mendearen hasieran Donostiara bizitzera etorri zen Willy Koch Schöneweiss argazkilariaren lau seme-alabetatik bigarrena. Museoko kaperetako bitan aurkeztua, lehen aretoa "gerraren albumari" eskainia dago, Gerra Zibilaren argazki argitaragabeekin osatutako album bat. Horretatik 90 bat irudi erakusten dira, garai hura dokumentatzeko balio duen material gehigarriarekin batera. Albuma oraindik editatu gabeko aurkikuntza bat da, eta Espainiako Gerra Zibilean interesa duen pertsona ororentzat balio handia du. Bigarren aretoak 1948an argitaratutako *País Vasco: Guipúzcoa* liburuko 65 irudi inguru erakusten ditu, izaera bukolikoa dutenak.

Gerrako albuma

Gaur egun, album hau San Telmo Museoaren bildumakoa da Koch familiari esker; izan ere, beraiek gorde dute albuma urte hauetan guztietan. Bere edukirik nabarmenena dira Franco jeneralaren indarrak babestu zituzten Abiazio Legionarioak (Italia) eta Condor Legioak (Alemania) Euskal Herrian egindako bonbardaketen ondorioak erakusten dituzten argazkiak. Bertan, suntsitutako herrien irudiak daude, hala nola, Zornotza, Artxanda, Durango, Galdakao eta Gernikakoak. Horiez gain, espazio honetan Pablo Murga eta Alejandro Goicoechea ingeniariak proiektatutako *Burdin hesiaren* argazkiak daude. Bilboren defentsarako babes-sistema bat izan zen Gerra Zibilean, 180 bunker ingurukoa.

Lehen espazio horretan, halaber, Bilboko hilerriko hormaren argazki ikaragarriak daude ikusgai, paredoi gisa erabili zutena eta bertan fusilatutako ageri dira; argazkilariak tiroek txikitutako hormak ere erakusten dizkigu. Irudi horietan ikus daitezke ere Ebroko fronteko aireko bonbardaketen argazkiak, Madrileko Unibertsitate Hiriko eraikin suntsituen argazkiak, hiriburua hartu ondorenekoak, eta armadek etsaiari hartutako gerra-materialarekin Kursaalaren egindako erakusketa, 1938koa, *Exposición de material de guerra cogido al enemigo*. Gune honi amaiera emateko, Carmelo Balda doktoreak egindako aurpegi-ebakuntzen argazki batzuk erakusten dira. Albuma Japoniako bigarren gerra txinatarrean zehar egindako argazki batzuekin amaitzen da, non ofizial japoniarrek presoek burua moztzen dieten (hauek ez dira Koch Bengoechearen argazkiak).

Gainera, album honetan Eduardo Lagarderen 29 marrazkiren argazkiak daude, argitalpen ezberdinetan agertzen diren ilustrazioak irudikatzen dituztenak. Agitalpen horietako batzuk eta marrazki horien hiru argazki erakusten dira atal honetan.

Material osagarri gisa, garaiaren testuinguruan kokatzen laguntzen duten hainbat elementu aurkezten dira, hala nola aldizkako argitalpenak edo beste artxibo batzuetatik eta erakundeen eta

partikularren funtsetatik ekarritako argazkiak, beira-arasetan erakusten direnak: besteak beste, Oskar Kokoschkaren *Pomozte baskickym detem!* litografia ezaguna; *Life* aldizkari amerikarra, Robert Capak Cerro Murianon jasotako Gerra Zibileko argazkirik esanguratsuena lehen aldiz argitaratu zuena; edo *Regards* aldizkari frantziarra, non berak eta David Seymourek ("Chim") Euskal Herrian Gerra Zibilaren inguruko hainbat erreportaje egiten zituzten; Euskadiko Alderdi Komunistak argitaratutako *Erri* aldizkari grafikoa, e.a.

Dokumentu horiekin batera, egile garaikide handien argazki gehiago daude, eta baita Florence Roberts kazetariaren albuma ere. Errefuxiatuen garraioan bereziki aritu zen Seven Seas Spray itsasontziko bidaiaria izan zen Roberts, eta Euskal Herriko Gerra Zibileko hainbat eszena islatzen ditu bere albumak.

País Vasco: Guipúzcoa

Erakusketaren bigarren zatia 1948ko *País Vasco: Guipúzcoa* argitalpenean jasotako argazki bukoliko, orogarri, agian nostalgikoek osatzen dute. 65 irudi hautatu dira, horietako batzuk jatorrizko maketakoak.

1948an Bilbon Huecograbado Arte enpresan inprimatu zen luxuzko liburuaren originalak dira. Liburuak 143 argazki ditu eta, besteak beste, tradizioak, giza motak, dantzariak, pilotariak, segalariak eta baserritarrak irudikatzen ditu. Herri batzuen argazkiak ere nabarmentzen dira, interes artistikoagatik.

Espazio honetan dokumentazio osagarriak ere ezinbesteko protagonismoa du. *País Vasco: Guipúzcoa* antzeko helburuekin argitaratutako beste liburu batzuekin batera agertzen da, besteak beste, Pascual Marínen *Lo admirable de Guipúzcoa*, Kurt Hielscherren *Das Unbekannte Spanien*, eta José ortiz Echagüeren hiru liburu (lehen edizioak): *España. Pueblos y Paisajes*; *España. Tipos y Trajes* eta *España Mística*. Koch Bengoechearen egunkari pertsonala ere areto honetan dago. Alemaniara familiarekin batera joan zeneko lehen hilabeteetan idatzi zuen eta bizipen horren lekukotasun intimo eta pertsonala da.

Pertsona eta erakunde mailegatzailleak

Sigfrido Koch Bengoechearen argazkiez eta museoaren funts gehiagoz gain, erakusketa honek honakoen maileguak izan ditu: komisarioenak, Lee Fontanella eta Juantxo Egaña, Koch familia, Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilboko Euskal Museoa, CRAI Biblioteca del Pavelló de la República (Bartzelona), Euskal Itsas Museoa, Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia Kulturako Liburutegi Sarea, Frantziako Liburutegi Nazionala, Espainiako Liburutegi Nazionala, Arxiu de Catalunya, Centro Documental de la Memoria Histórica (Salamanca), Bilboko Artxibo Historikoa, Gipuzkoako Artxibo Historikoa, Kutxa Ondarea, Museo de Navarra, Archivo de Navarra, Vitoria / Gasteizko Artxiboa, Fondo del Burgo Navarra, Uffizio Aeronautico Italiano (Roma) eta Gerediaga Elkarte; eta beste hainbat partikularrenak ere.

Katalogoa



Erakusketa honen katalogoa ere argitaratu du museoak, Bildumak/Museoko Bildumak linearen argitalpen berri bat. Bertan hainbat ikertzaile eta historialarik parte hartzen dute. Erakusketaren komisarioek, Lee Fontanella argazkilaritzaren historialari iparramerikarrak eta Juantxo Egaña argazkilaria eta dokumentalista grafikoak, Sigfrido Koch Bengoechearen lanari buruz bi ikuspegi desberdinetatik idazten dute. Xabier Irujok, Nevadako Unibertsitateko (Reno) Euskal Ikasketen Zentroko zuzendariak, Gerra Zibilean izandako bonbardaketetan parte hartu zuten pertsonaiak eta izandako gertaerak aztertzen ditu bere testuaren bidez. Karnele Jaio idazle eta Euskaltzainaren testuak Sigfrido Kochen lanaren

irakurketa ezberdina ematen du, poetikoagoa. Eduardo Lagarde margolari eta marrazkilaria buruz Mikel Lertxundi arte historialari eta erakusketa-komisarioak idatzi du, eta, azkenik, Lurdes Herrasti historialari, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea eta osteoarkeologian espezializatuak Gerra Zibilari buruzko albumeko argazkiekin zerikusia duten beste ikuspegi batzuei buruz idazten du.

Katalogoa salgai dago museoan, 20 euroan.

El Museo San Telmo presenta la exposición fotográfica *Entre el humo y la bruma. Sigfrido Koch Bengoechea*

La muestra, que recoge unas 150 imágenes en su mayoría inéditas, está comisariada por Lee Fontanella y Juantxo Egaña y se podrá visitar desde el 18 de febrero hasta el 23 de mayo.

La exposición se basa en la obra fotográfica de Sigfrido Koch Bengoechea, el segundo de los cuatro hijos de Willy Koch Schöneweiss, fotógrafo afincado en Donostia desde principios del siglo XX. Presentada en dos de las capillas, la primera sala está dedicada al “álbum de la guerra”, un álbum con fotografías inéditas de la Guerra Civil, en la que se muestran unas 90 imágenes, acompañadas de diverso material adicional que sirve para documentar la época. Este álbum, como tal, es un descubrimiento sin editar todavía, y posee un indudable interés para toda persona interesada en la Guerra Civil española. La segunda sala muestra una selección de imágenes, unas 65, que formaron parte del libro *País Vasco: Guipúzcoa*, publicado en 1948, y tienen un carácter bucólico.

Álbum de la guerra

Este álbum hoy forma parte de las colecciones del Museo San Telmo, gracias a la familia Koch, que lo ha guardado a lo largo de estos años. Su contenido más notable son las fotografías que muestran los efectos de los bombardeos en el País Vasco por parte de la Aviación Legionaria (Italia) y la Legión Cóndor (Alemania) que apoyaron a las fuerzas del general Franco. En él se encuentran imágenes de poblaciones devastadas como Amorebieta, Artxanda, Durango, Galdakao y Gernika. Además de estas, se incluyen en este espacio fotografías del llamado *Cinturón de hierro* proyectado por los ingenieros Pablo Murga y Alejandro Goicoechea, que consistía en un sistema de protección para la defensa de Bilbao durante la Guerra Civil con alrededor de 180 búnkeres.

En este primer espacio se exponen también las escalofrantes fotografías del muro del cementerio de Bilbao, utilizado como paredón, donde yacen los fusilados y el fotógrafo nos muestra los muros destrozados por las balas. También se pueden ver fotografías de los bombardeos aéreos en el frente del Ebro y de los edificios destruidos de la Ciudad Universitaria en Madrid después de la toma de la capital; e imágenes de la exposición *Exposición de material de guerra cogido al enemigo* por las tropas franquistas, que se celebró en el Kursaal en 1938. Como colofón a este espacio se muestran una serie de fotografías de operaciones faciales realizadas por el doctor Carmelo Balda. El álbum finaliza con unas fotografías realizadas en el transcurso de la segunda guerra chino japonesa, donde oficiales japoneses decapitan a prisioneros (estas no son fotos de Koch Bengoechea).

Además, se incluyen en este álbum fotografías de 29 dibujos de Eduardo Lagarde, que representan ilustraciones que aparecen en diversas publicaciones. Se muestran algunas de estas publicaciones y tres fotografías de estos dibujos.

Como material de apoyo en la exposición se presentan una serie de elementos que contribuyen a contextualizar la época, como publicaciones periódicas o ejemplares fotográficos traídos de otros archivos y fondos de instituciones y particulares, que se exponen en vitrinas. Entre ellos: la litografía de Oskar Kokoschka *Pomozte baskickym detem!* (Lagundu euskal haurrei! / ¡Ayuda a los niños vascos!); revistas como la americana *Life*, donde por primera vez se publica la foto más emblemática de la Guerra Civil captada por Robert Capa en Cerro Muriano; la francesa *Regards*, donde él mismo y David Seymour (“Chim”) realizan varios reportajes de la guerra en el País Vasco; la revista gráfica *Erri*, editada por el Partido Comunista de Euskadi; y otras revistas de ámbito internacional. También se muestran fotografías de grandes autores contemporáneos de Sigfrido Koch Bengoechea, y asimismo, destaca el álbum de la periodista Florence Roberts. Pasajera del barco *Seven Seas Spray*, se dedicó especialmente al transporte de refugiados y confeccionó un álbum fotográfico en el que están plasmadas diferentes escenas de la Guerra Civil en el País Vasco.

País Vasco: Guipúzcoa

La segunda parte de la exposición está constituida por las fotografías más bien bucólicas, rememorativas, quizá nostálgicas, que se recogían en la publicación *País Vasco: Guipúzcoa*, de 1948. Se han seleccionado 65 imágenes, algunas de ellas originales de la misma maqueta.

Son los originales del lujoso libro que fue impreso en Bilbao en la empresa Huecograbado Arte en 1948. Su contenido de 143 fotografías representa las tradiciones, tipos humanos, dantzaris, pelotaris, segalaris y baserritarras entre otros, así como ritos de distinta índole. Destacan también las fotografías de algunos pueblos por su interés artístico.

En este espacio la documentación asociada también tiene un protagonismo ineludible. El libro *País Vasco: Guipúzcoa* aparece acompañado de otros libros editados con propósitos similares. Es el caso de *Lo admirable de Guipúzcoa* de Pascual Marín; *Das Unbekannte Spanien* de Kurt Hielscher. También de tres libros de José Ortiz de Echagüe (primeras ediciones): *España. Pueblos y Paisajes*; *España. Tipos y Trajes*; *España Mística*. Sigfrido Koch participó en concursos fotográficos como es el caso del organizado por la revista fotográfica *Sombras*, que marcó una época en la posguerra en un momento de censura y grandes restricciones, y que fue editada por la Sociedad Fotográfica de Madrid. Se exponen dos ejemplares en los que aparecen imágenes relacionadas con el libro de *País Vasco: Guipúzcoa*. También se presenta y el diario personal de Sigfrido Koch Bengoechea, escrito durante los primeros meses de la contienda cuando viajó a Alemania acompañado de su familia, es el testimonio íntimo y personal de esta vivencia.

Personas y entidades prestadoras

Además de las fotografías de Sigfrido Koch Bengoechea y otros fondos del museo, esta exposición ha contado con préstamos de los propios comisarios, Lee Fontanella y Juantxo Egaña, la familia Koch, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Museo Vasco de Bilbao, CRAI Biblioteca del Pavelló de la República (Barcelona), Museo Marítimo Vasco, Koldo Mitxelena Kulturunea, Red de Bibliotecas de Donostia Kultura, Biblioteca Nacional de Francia, Biblioteca Nacional España, Arxiu de Catalunya, Centro Documental de la Memoria Histórica (Salamanca), Archivo Histórico de Bilbao, Archivo Histórico de Gipuzkoa, Kutxa Ondarea, Museo de Navarra, Archivo de Navarra, Archivo de Vitoria / Gasteiz, Fondo del Burgo Navarra, Uffizzio Aeronautico Italiano (Roma) y Gerediaga Elkartea, así como de otros prestatarios particulares.

Catálogo



Se ha editado un catálogo de la muestra, una nueva publicación de la línea Bildumak / Colecciones del museo. Cuenta con la participación de diferentes investigadores/as e historiadores/as. De un lado los comisarios de la exposición, el historiador norteamericano de la fotografía Lee Fontanella y el fotógrafo y documentalista gráfico Juantxo Egaña, escriben sobre la obra Sigfrido Koch Bengoechea desde dos ópticas diferentes. Xabier Irujo, director del Centro de Estudios Vascos de la Universidad de Nevada, Reno, analiza a través de su texto los hechos y personajes que tomaron parte en los bombardeos durante la Guerra Civil. El texto de Karmele Jaio, escritora y

miembro de Euskaltzaindia, da una lectura diferente a la obra de Sigfrido Koch, más poética si cabe. Sobre el pintor y dibujante Eduardo Lagarde escribe Mikel Lertxundi, historiador de arte y comisario de exposiciones, gran conocedor de su obra. Por último, la historiadora Lurdes Herrasti, miembro de la Sociedad de Ciencias Aranzadi y especializada en osteoarqueología, escribe sobre otras visiones relacionadas con las fotografías del álbum sobre la Guerra Civil.

El catálogo está a la venta en el museo a un precio de 20 €

JARDUERAK / ACTIVIDADES

HITZALDIAK | CONFERENCIAS

Koch, familia baten erretratua. Alemaniatik Euskal Herrira; Jantxo Egaña

Martxoak 10 / 10 de marzo. 19:00. Euskaraz

Ekitaldi aretoa / Salón de actos

Una cámara en bandolera. Fotógrafas en la guerra civil española; Mari Santos García Felguera.

Apirilak 14 / 14 de abril. 19:00. En castellano

Ekitaldi aretoa / Salón de actos

¡Aquí fue Troya! Campos de reflexión fotográfica; Lee Fontanella.

Maiatzak 6 / 6 de mayo. 19:00. En castellano

On line: www.santelmomuseoa.eus

MAHAI INGURUA | MESA REDONDA

*Gerra kontatu; Karlos Zurutuza, Andoni Lubaki
Asier Larraza (mod.)*

Apirilak 21 / 21 de abril. 19:00. Euskaraz

Ekitaldi aretoa / Salón de actos

BERTSO SAIOA

*Euskal Herriko paisaia poetikoa; Maialen Lujanbio, Miren Amuriza
Danele Sarriguarte, gai-jartzailea.*

Martxoak 17 / 17 de marzo. 19:00. Euskaraz

Ekitaldi aretoa / Salón de actos

ARGAZKI-LIBURUA | FOTOLIBRO

Hombre efímero. Paisaje eterno; Ricky Dávila

Martxoak 13 / 13 de marzo. 12:00 En castellano

Ekitaldi aretoa / Salón de actos + Zuzenean / En directo: www.santelmomuseoa.eus

War Edition, Roberto Aguirrezabala

Apirilak 17 / 17 de abril. 12:00. En castellano

Ekitaldi aretoa / Salón de actos

HILEKO OBRA | OBRA DEL MES

Ant. / Org.: AAMST. Lag. / Col.: STM

Sobre la fotografía de paisaje, Koldo Badillo

Apirilak 4 / 4 de abril. 12:00 En castellano

Ekitaldi aretoa / Salón de actos

Soñar o la irracional creativa, Juan Aguirre Sorondo

Maiatzak 2 / 2 de mayo. 12:00. En castellano

Ekitaldi aretoa / Salón de actos

BISITA GIDATUAK | VISITAS GUIADAS

Astearteetan / Martes: 11:30 cas, 19:00 eus

Larunbatetan / Sábados: 11:30 eus, 19:00 cas

Jarduera guztietarako beharrezkoa da lekua museoaren webgunean erreserbatzea. Jarduerak doakoak dira, baina bisita gidatuetan museoko sarrera eskuratu behar da.

Es necesario reservar plaza para todas las actividades, en la web del museo. Las actividades son gratuitas, pero para las visitas guiadas hay que adquirir la entrada del museo.